

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko maiatzaren 2a

*



Pianoa maisuki jotzen ikasi zuen Emiliana de Zubeldia nafarrak.

JAGOBA MANTEROLA

Emiliana Zubeldia, erbesteko konpositore ahantzia

■ Hilaren 26an hamar urte eginen ditu Emiliana Zubeldia Inda konpositore nafarrak Mexikoko lur azpian. 1928. urtean utzi zuen kontinente zaharra Amerikako lurak ezagutzeko, baita Nafarroa betiko atzëan uzteko ere. Berrogei urterekin joan zen, eta 98rekin hil, 1987ko maiatzean. Bitarte horretan, Emiliana bitan baino ez zen itzuli Nafarroara Mexikoko erbestetik, eta bietan ia inork ez

zuen jakin gure herrialdean zela. Emakume ausarta izan zen; konpositore, irakasle eta batez ere piano jole handia. Europa eta Ipar eta Hego Amerikako eszenatokiak ongi ezagutu zituen, eta garaiko abangoardiekin harreman handia izan zuen. Nafarroan, ordea, gutxi ezagutzen dute, gutxi dute entzuna haren izena, gutxi gogoratzen dute Jaitzen jaio zen Emiliana Zubeldia Inda. ■

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Karrikak izen ospetsuko denda dotorez betetzen hasi direnean bakarrik oroitu dira beren haurtzaroaz Parisko auzo mitiko bateko biztanleak, eta duela ia hogeita hamar urte jaurti zituzten galtzadarraren azpian tokiaren izpiritua bilatzeari ekin diote. Ez da lan makala. Seguru asko Armani, Dior, Chanel eta horrelako konpainietako arduradunek ere hainbat tokiren izpiritua bilatu zuten etengabe, *foulard* batean, lurrin marka batean edo transparentzia batean aurkitu zuten arte. Gero diruak izpiritua irentsi zuen, eta aldizkarietako paper garestian produktuak iragartzen dituzten jainkosen irribarra besterik ez zen geratu. Hori bai, behin eta berriro konparatzen ditugu Emmanuelle Beart aktorearen argazkiak eta ez dakigu non aurkitu duen bakea bere izpirituak, luxuzko marketan ala etorkin beltzen aldeko borrokan. Arriskuan

Tokiaren izpiritua

omen daude zi-tuen kontratuak emakume frantses sofistikuaren irudia ematen ez duelako, bai-na guri noiz baino sofistikuagoa eta ederragoa iruditu zitzaigun poliziek atxilotuta eraman zutenean. Zer pentsatuko zuten modako estilista finek beren musa manifestazio baten buruan eta makilajerik gabe ikusi zutenean? Beren garai iraultzaileez oroitu ziren eta aktorea madarikatuko zuten ongi orraztu gabe ibiltzeagatik? Eta zer pentsatuko dute orain urrezko jostun hauek, modaren sortzaile zorrotzek, jendeak toki baten izpiritua deuseztatu izana leporatzen dienean? Seguru asko Juliette Greco eta gainerakoak injustizia bat egiten ari direla, eta, gainera, hortarak eta gustu txarrekoak direla esanen dute, orain arte inork ez baitu protestarik egin macdonals, burgerking eta holakoen kontra. Zer da

arriskutsuagoa pertsona nahiz toki baten izpirituarentzat, haragi txarraz egindako hanburgesa edo bi milioi frankoko jantzi abangoardista? Gure izpirituak erabat nahasirik dauden garai hauetan, pentsa ezazue nola egonen diren tokien izpirituak hainbeste eraikin berri, hainbeste antena paraboliko, hainbeste astakeria urbanistiko ikusi ondoren. Metropoli foral honen izpiritua, esate baterako, erotuta omen dabil aspaldian eta gaez, kanpantzuaren inguruan, negarrez entzun dutela diote batzuek. Eta hori Armani, Dior, Galiano eta Macartneyren alabaren disei- nuak ez direla oraindik iritsi, ezta El Corte Inglés ere. Eskerrak haurtzaroko argazkiak eta konpainia handiek eta enpresa konstruktoreen makinek sekula aurkituko ez duten ezkutalekuren bat geratzen zaigun tokiaren izpiritua babesteko. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruña: Jazz Quartet taldeak jazz kontzertua eskainiko du etzi, hilak 4, ilunabarreko 8:30etan.

Tafalla: Gabalzeka tabernan Natty Dreaden reggae musika kontzertua izanen da gaur, hilak 2, 23:30etan.

Gares: Camela abeslariak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 3, 23:00etan, Gares aretoan.

ERAKUSKETAK

Lizarra: Jesus Sanchezen instalakuntzak izanen dira ikusgai Gustavo de Maeztu museoan ekainaren 8ra arte.

Tafalla: Carlos Castiellaren mar-goak Kultur Etxean ikusgai izanen dira maiatzaren 18ra arte.

ANTZERKIA

Lizarra: Gorakada taldeak *Pinto 2000* lana antzetzuko du Remontibal ikastetxean datorren asteartean, maiatzak 6, arratsaldeko 3:30etan.

ZINEA

Tafalla: Cinema Españolen *Secretos y mentiras* pelikula eskainiko da datorren ostegunean, maiatzak 8, arratsaldeko 8:00etan eta gaueko 10:30etan. Sarrera 250 pezeta kostako da.

BESTELAKOAK

Korella: Nafarroako Mountain Bike Txapelketa eginen da etzi. Karrera 'estankilla'atik aterako da 10:30etan.

Iruña: Iruñeko Udalak Arga ibaia piraguaz zeharkatzeko bidaiak antolatu ditu maiatzeko eta ekaineko asteburuetarako. Zeharkaldian igeri egiten dakiten 18 eta 25 urte bitarteko gazteak har dezakete parte eta 500 pezeta kuota ordaindu beharko dute. Informazio izena eta 13 10 44 telefonora deitu behar da edo Marzelo Zelaieta kaleko 75ean dagoen Nattura agentziatik pasatu.

Iruña: Nafarroako Goi Mendi Eskolak harkaitzean eskalatzen ikasteko eta trebatzeko ikastaroa antolatu du maiatzaren 10, 11, 17 eta 18an. Ikastaroan parte hartzeko gazteek 10.000 pezeta ordaindu beharko dituzte eta helduek 14.000. Ikastaroa egin nahi duenak maiatzaren 5ean edo 6an eman behar du izena Paulino Caballero 13, 3an.

Iruña: Txantreako jaietan bertso afaria izanen da gaur, Auzotegi Kultur Etxean, gaueko 10:00etan. Bertsoan ariko dira Estitxu Arozena, Mikel Altzuart eta Jon Maia.

nafarkronika

Pelló Argiñarena

'Caravinagreak'

Urtero sasoi honetan, Iruñeko Udalak Sanferminak iragarriko dituen kartela plazaratzen du. Iazkoan, sasi-pornografiaren bidea hartu ondoren aurtengo arte dramatikoa aukeratu dute.

Txikitan, *Caravinagre* ikusi bezain pronto sentitzen nuen hortzikara eta gurasoen besoe-tan ixurritako malkoak gogoratu ditut, buruhandiaren aurpegi beldurgarriarekin topo egi-terakoan berriro.

Mehatxu keinua eta kaskoan daraman trikornio antzeko hori ikusita, edonork goardia zibil baten itxura hartu diezaioke erraz aski. Obra honetan ere, Arbeloa olerkariaren irudi ospindua antzemango duenik izanen da baztarretan. PSNko kideek, ordea, beldur gutxi dagoeneko Mañeruko semeari.

Eskuinarekin jarraituz loa galarazteko moduko muturrak nonnahi ditugu. Aizpun erretiratuaren momia irudiak, Gurrea guttiz ahaldunaren irribarre maltzurak eta Cerveraren hitz eta begiratu zinikoak badute nolabaiteko parekotasunik *Caravinagre* gizarajoekin.

Era berean, zenbait gaztek kartelari Ansuategiren antza hartu diotelakoan nago, ozpin sulfurikoz beteriko botilena jabetza edonori egozten baitio elgoibartarrak.

Bestalde, Madrilek Itoitzeko urtegia eta Nafarroako ubidea «intereseko» obra izendatu ondoren, Sanzen begitarte ospindua aldatu egin da. Zer nolako «interesak» diren horiek ez dute azaldu oraindik.

Bitartean, ez dago giro hezkuntzaren alorrean. Kontseilariak, batek daki D ereduaren arrakastak eragindako amorruek jota edo, *Marcotazo* baten bidez DBHren aldaketa indarrean jarri nahi du.

Dena den, benetan ospindu-

rik daudenak Osasunaren jarraitzaile gizar-joak dira. Datozen asteak erabakigarriak izanen dira zelaian ezezik, zuzendaritza batzordean ere.

Atzoko egunari dagokionez, hainbatek eredu-garritzat jotzen duten ELA eta LABen arteko hitzarmena ospintzen hasi ez ote den susmoa daukat.

Azkenik, aurreko igandean *Caravinagre* eta euriak oztopaturiko Nafarroaren Eguna-ren ekitaldirik nagusiena Ricard-i eginiko omenaldia izan zen berriro ere. Ospinduriko sabelak bere onera bueltatzeko beta izan dute Senperen berriro izorratu aurretik.

SAN FERMIN 1997



PAMPLONA - IRUÑA
6 al 14 de Julio/ Uztailaren 6 tik 14 era

asteko pertsonaiak



Juan Jose Lizarbe
PSNko idazkaritza nagusirako hautagaia

■ PSOeko buruzagitza federalak Juan Jose Lizarbe Nafarroako gestoratik kanporatzea erabaki zuen astelehenean. Lizarbe zigortzeko eskaera Victor Manuel Arbeloa gestorako lehendakariak berak egin zuen. Tuterako bileran gertatutakoagatik haserre. Arbeloaren arabera, Lizarberen desleialtasuna «neurrigabekoa» izan zen, eta, horregatik, merezita zeukan zigorra. PSNren baitan sortutako azken krisiak agerian utzi zuen gestorearen bakardadea. Gestorak galdu egin ditu Nafarroako militanteen artean egindako bozketa guztiak. Hala ere, Madrileko zuzendaritza federalaren sustengua duenez, aurrera egingo du ekaineko kongresura arte. Horretan PSNko idazkari nagusia aukeratuko dute Nafarroako sozialistek. Oraingoz Lizarbek dauka idazkari nagusi izateko aukera gehien.



Fernando Arretxe
Pilotaria

■ Aurtengo manomanista ez da batere ona izan nafarrantzat. Eugi, Beloki eta Errandonea kanporatu ondoren, Fernando Arretxe zen maiatzaren 11ko finalean nafar bat izateko aukera bakarra. Eta Luzaidekoak ez zigun huts egin joan den igande goizean Gasteizen jokaturako finalerdian. Erraz irabazi zion Santi errioxarrari, 22-8. Igandeko partidua eroso izan zen nafarrantzat, baina manomanistako txapela eskuratzeko Aitor Elkoro gipuzkoarra garaitu behar du oraindik Luzaideko pilotariak. Eta Elgetakoak, indartsu dagoela frogatu du. Arretxek argi du Elkoro mugiarazi beharko duela, atzera eta aurrera eramanez, «bestela, sei koadrotik pilotatzen uzten badiozu, edozeinek baino gehiago jotzen du».

ahaztu gabe!



Mendi irteerak

Irurtzun: Iratxo Elkartek Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren laguntzaz, bederatzigarren aldiz inguruko bazterrak zeharkatuko dituen ibilaldiak antolatu ditu. Lehenengo goizeko zortzietan aterako da Iratxo elkartearen egoitzatik igandean. Ibilaldi handia izanen da hori. Ordubete beranduago, haurrentzat prestatu dutena abiatuko da leku beretik.

Ibilaldi handiari edo luzeagoari dagokionez, Irurtzundik atera eta Izurdiagan hartuko dute parte-hartzaileek hamaitakoa. Handik, Larraun eta Arakilgo zubietara abiatuko dira, Gaztelu, Zuhatu eta Satrustegira gero, eta Hiriberri, Madozko bidea eta Etxeberri zeharkatu ondoren, Irurtzuna itzuliko dira.

Haurrentzako ibilbideak, bestalde, hiru ordu eta erdiko iraupena izanen du. Ibilaldi handia bezala, Iratxo elkartearen egoitzatik aterako da haurrena ere, eta Aizkorbe, Itsesia eta Izurdiaga zeharkatu ondoren, Irurtzuna itzuliko dira mendizaleak. Eguraldiak laguntzen badu, mendian egun ederra pasatzeko aukera eskainiko dute Iratxo elkartek antolatu ibilaldiek.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkar-irizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-irrentzako saioa 12.30etan.

Antsoain

Euskal Jaiak prest

Hilaren 15, 17 eta 18an ospatuko dituzte herriko hainbat taldek antolatuta

Urtero legez, Euskal Jaiak antolatu dituzte aurten ere Antsoainen herriko hainbat taldek. Hilaren 15, 17 eta 18an izanen dira. Antolatzaileek mota askotako ekitaldiak presatu dituzte ahalik eta herriar gehien erakartzeko asmoz. Kirola, antzerkia, dantza eta musikarekin batera, erakusketak eta herri bazkaria dira aipagarrienak.

Erredakzioa / Iruñea

ANTSOAINGO Euskararen Aldeko Patronatuak, Eguzki Eder dantza taldeak, Ezkaba ikastetxe publikoak eta Gazte Batzordeak antolatuta, Euskal Jaiak ospatuko dituzte Antsoainen hilaren 15, 17 eta 18an. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldiak emanen die hasiera ospakizunei, maiatzaren 15ean, udal kiroldegian. Arratsaldeko 3:15etan hasiko da inguruko haur guztiak bilduko dituen ikuskizuna.

Hilaren 17an, bestalde, goizeko 11etan hasiko dira eguneko ekitaldiak. Lapurbide parkean txokolate edatea egingen dute, Ordu erdi beranduago eta leku berean, Marinba antzerki taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du. Talde horrek kale antzerkia jorratzen du. Ondoren, eguerdiko 12:30etan herri kirolak izanen dira Lapurbiden: kozkor biltzea, trontzalariak, txinga proba, zaku lasterketa, zamari lasterketa eta sokatira. Ondoko talde hauek hartuko dute parte: Gazte Be-



Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldiarekin hasiko dira ospakizunak.

riak elkarteko futbito, halterofilia eta saskibaloit taldeak, Antsoaingo Gimnasio taldea, Xalbador euskaltegiko taldea, Gazte Batzordekoa, Ezkaba ikastetxe irakasleak, eta baita neska-mutilak ere. Gau partean musika eta dantza izanen dira protagonista. Ezkaba ikastetxe pilotalekuan, hain zuzen, Drindots taldeak kontzertua eskainiko du. Gaueko 11etan hasi eta goizaldeko 3ak aldera amaituko da.

Hilaren 18koak izanen dira aurtengo Euskal Jaien azken ekitaldiak. Goizeko 9etan dianak

joko dituzte Antsoaingo txistulariek eta gaitariak, bai eta Labriteko txistulariek ere. Gainera, goiz osoan, Lapurbide parkean, hamabost artisaren lana ikusteko parada izanen da. Burni, buztin edo zurez egindako eskulanak salgai izanen dira. Ezkaba ikastetxe neska-mutiek, halaber, erakusketa antolatu dute, marrazki, pintura eta zeramikako gauzekin.

Eguerdian, kalejira egingen dute Antsoaingo Eguzki Eder taldearen, Erriberriko Txiribi dantza taldearen, Berriozarko

Zanpantzar Txikiak, Antsoaingo txistulari eta gaitarien eta Labriteko txistularien laguntzaz. Jarraian, Lapurbide parkean, talde horiek beren emanaldia eskainiko dute, kalejira amaituta.

Herri bazkaria ere ez da faltako Antsoaingo Euskal Jaietan. Egun berean izanen da, arratsaldeko 2:30etan, Ezkaba ikastetxean. Dantzaldia izanen da ondoren. Antolatzaileek iragarri dutenez, eguraldiak laguntzen ez badu Ezkaba ikastetxe pilotalekuan egingen dira hilaren 17 eta 18ko ekitaldi guztiak. X

Zizur Nagusia

Igandera arte ospatuko dute Gazteriaren Astea

■ Herriko hainbat taldeek eta Udalak antolatu dute

Erredakzioa / Iruñea

ZIZURKO hainbat taldek -Gazte Taldea, Iratxo, Zizurko Joaldunak, Akelarre, Eskalada Taldea eta herriko rock taldeak- Udalarekin batera Gazteriaren Astea antolatu dute. Kirola eta musika izan dira azken egunetan protagonista. Gaurko ekitaldiak goizeko 11:30etan hasiko dira Gaztetxean. Ordu horretan, itzal txinatarren erakustaldia egingen dute. Eta arratsaldean, leku berean, Baffinera egindako espedizioari buruzko hitzaldia egingen dute, 6etan. Ordu bete beranduago eta Igerilekuan, herri kirolak izanen dira nagusi. Txistorra jatea egingen dute eta dantzariak beren ikuskizuna aurkeztuko dute. Gaue-

ko 9:30etan, azkenik, herri afaria egingen dute. Sarrerak 600 pezeta balio du.

Larunbateko ekitaldiak diabolito erakustaldiarekin hasiko dira. Ikastetxean izanen da. Arratsaldean, bestalde, gaztetxean ETaren *Alternatiba Demokratikoa*-ren inguruko mahai-ingurua egingen dute. Gau partean musika izanen da protagonista Los Planetas eta Amphetamine Discharge taldeekin. Pilotalekuan izanen da kontzertua, gaueko 10etan.

Igandean, azkenik, mus txapelketa egingen dute arratsaldeko Gaztetxean, eta Zizur Nagusiko antzerki talderak *Los crímenes de Villefort* eskainiko du (bere azken lana) gaur eta bihar, Kultur Etxean. X

Berriozar

Osasun Kontseilua Argia eta Laira zentroyen alde

■ Emakumeen Osasun Planak ez ditu aipatzen

Erredakzioa / Iruñea

BERRIOZARKO Oinarrizko Zonaldeko Osasun Kontseilua haserre dago Nafarroako Gobernuarekin. Izan ere, Osasun Departamentua prestatzen ari den Emakumeen Osasun Laguntza Planaren barruan aipatu ere ez dira egiten Argia eta Laira Ginekologia eta Famili Plangintzarako zentroak. Berriozarko Osasun Kontseiluak zentrook azken urteetan egin duten lana gorapatu du. Laira zentroari dagokionez, hamar urteko ibilbidea duela azpimarratu du, eta beraz, Nafarroako Gobernuaren Sarearen barruan edota hitzarmen ekonomikoaren bidez, funtzionatzen jarraitu behar duela defenditu du.

Kontseiluko kideek, bestalde, Laira zentroa zonaldean behar-beharrezkoa dela nabarmendu dute, besteak beste Berriozar eta inguruko herrien biztanleria etengabe handitzen ari delako. Zentroya jo duten emakumeak jaso duten zerbitzuetan pozik direla azpimarratu dute haiek ere. Ildo horretan, zentroko eta osasun etxeko kideen artean erabateko elkarlana izan dela jakinarazi du Kontseiluak, eta horren erakusgarri dela bi tokietako kideek osatutako Emakumearen Batzordea. Osasun Departamentuaren bekak jaso dituzten lanak ere egin izan dituzte aipatu batzordean; besteak beste, Emakumeen osasun beharrak izenekoak. X

Atarrabia

Herriari buruzko gida kaleratu du Udalak

■ 4.000 ale banatuko ditu herritarren artean

Erredakzioa / Iruñea

ATARRABIARAKO UDALAK herriari buruzko gida argitaratu du, eta datozen egunetan herritarren artean banatuko du. 4.000 ale kaleratu ditu Herriko Etxeak, Atarrabiako biztanle guztiak jakin dezaten herriak zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dituen. Azkenik egia bihurtu den Udalaren asmo hau ez da berria, 1990ean jada antzeko gida bat egin baitzuten. Ordukoak, dena den, hainbat hutsune zuten Udaleko arduradunen ustez, eta ez zuten banatu.

Herritarrek orain eskuratu dute gidak 36 orrialde ditu. Atarrabiako historia, momentuak eta jaiak aipatu ezezik, kultur, kirol, hezkuntza eta erlijioaren alorreko zerbitzu guztien zerrenda eskaintzen du. Herriko elkarte, talde eta kolektiboek ere badute beren txokoa, baita Atarrabiako komertzioek eta industriak ere. Informazio horrekin guztiarekin batera, herriko planoak argitaratu du Udalak.

Herriko Etxeko arduradunek azpimarratu dutenez, gidaren helburua etxekoentzat baliagarria izatea da. X

Aralar

Hitzarmena sinatu dute Gobernuak eta Aralarko Batasunak

■ Mendizerraren erabilera turistiko arautzea du helburu

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO GOBERNUKO Ingurugiro kontseilari Yolanda Barcinak eta Lakutzako alkate eta Aralarko Batasuneko lehendakari Socorro Artiedak lankidetzan hitzarmena sinatu dute; horren arabera, aurten, ia hamalau milioi pezeta ko dirulaguntza emanen du Gobernuak Aralarko mendizerraren erabilera turistiko arautzeko.

Iazko uztail, abuztu eta iraillean, ia 24.000 bisitari izan zen Aralarren. Aralarko Batasuna elkartearen esku dago mendien babesa. Hainbat basozain ditu lan hori egiteko. Halaber, elkarte horrek kontrolatuko du pistetan zenbat ibilgailu dagoen, ekainaren 1a eta urriaren 30a bitartean.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak zehaztu beharko du Aralarko Batasuneko basozainen uniformeak nolakoak izanen den. X

Emiliana Zubeldia,
musikari ezezaguna

Dama liluragarri baten erretratua

Emiliana Zubeldia piano jole nafarraren heriotzaren hamargarren urteurrena beteko da hilaren 26an

Mexikoko Hermosilla herrian zendu zen Emiliana Zubeldia 1987ko maiatzaren 26an, 98 urte zituela. Jaitzen sortua zen, 1888an, Emiliana piano jole, konpositore eta irakaslea, dama liluragarri bezain misteriozua. Nafarroan ezezaguna da, bere bizitzako aztarna guztiak ezabatu zituelako gure herrialdea betiko utzi zuenean.

Edurne Elizondo / Iruñea

EZINEZKOA da Emiliana Zubeldia Indaren lilurari ihes egitea. Ezinezkoa. Lerrook idatzi dituen kazetariak ongi daki. Haren izen ezezaguna lehenbiziko aldiz entzun eta gero, ezinezkoa izan zaio —izan zait— bizitzako urte gehienak Mexikon eman zituen emakume nafar konpositorearen aztarnen aurrean bestaldera begiratzea. Data batek beste batera eramaten gaitu, datu batek beste batera, anekdota batek beste batera. Eta data, datu eta anekdotak ez dira gutxi Emiliana Zubeldia Indaren bizitza luze eta oparoan.

Nafarroako herri jaitzen hasi zen 1888. urtean Emilianaren bizitza oparo eta emankorra. Herria, dena den, hemezortzi hila-bete besterik ez zituenean utzi zuen, eta Iruñeko giroan —orfeoia, Santa Cecilia elkarteak, musika bandak— murgildu. Iruñean, gainera, aitonaren pianoa aurkitu zuen Emilianak, bere karrera bikainari hasiera eman zion pianoa.

Iruñean hasitako musika ikasketak Madrilgo kontserbatorioan amaitu zituen. Iruñera itzuli ondoren, Pariserako bidea hartu zuen musikari nafarrak, hango Schola Cantorum ezagunean piano eta konposaketa ikasketak egiteko. Vincent D'Indy maisuak zuzendutako eskola horretan irakasle ospetsuak izan zituen nafarrak, besteak beste Blanche Selva eta Désiré Pâque. Parisen, gainera, pianorako piezak konposatzen hasi zen, baita hainbat elizatan organoa jotzen ere.

Emiliana Zubeldiak Parisera egin zuen lehenengo bidaiak erakutsi zuen jada nafarra emakume ezberdina zela. Musikaren munduan bere lekua aldarrikatu zuen, eta Parisen mendeko hasierako abangoardia artistikoen giroan, figura aktiboa izan zen, bere jardura artistiko propioa garatuz. Parisen, Schola Cantorumeko irakasleak ezezik, Miro, Picasso eta Claude Debussy konpositorea ezagutu zituen, besteak beste, baita Maurice Ravel lapurtarra ere. Azken horrekin harreman estua izan zuen.

1908. urteko Gabonetan, Iruñera itzuli zen Emiliana. Handik egun gutxira, 1909ko urtarrian, Antonio Zubeldia Elizondo, musikariaren aita, zendu zen. Atsekabeari aurre egin zion, eta musikaren bidetik jarraitu zuen Emilianak. 1909. urtean bertan, Zubeldia Musika Akademia ireki zuen.

Emiliana Zubeldiak Euskal

Herritik urrun eramango zuen ibilbidea ordurako hasia bazuen ere, bere herriarekiko maitasuna ez zitzaion inoiz itzali barruan, eta abertzaletasuna, sorterritik kanpo ere, sutsu bizi izan zuen. Sutsuegi, agian, Jose Luis Ansorenaren ustez. Errenteriako Eresbil Euskal Musikarien Artxiboko arduraduna da Ansorena, eta Emiliana Zubeldiaren bizitza eta obraren ezagutzailea. Hark gogoratu duenez, «atzerrian, Euskal Herriak bizi zuen zapalkuntza salatu zuen beti Emilianak. Martin eta Nestor anaiak kartzelaratu zituztela esan zuen behin eta berriz, baina hori ez zen egia».

Nestor Zubeldia Iruñeko katedraleko dean izan zen; anaia Martin, berriz, kaputxinoa. Abertzale eta errepublikazaleak biak; horrexegatik, bizitza publikotik baztertu zituzten askotan. Martin, Gumersindo Lizarrakoa izenez zen ezaguna ordenaren barruan. Jose Luis Ansorenak ongi ezagutu zuen, hamar urte elkarrekin eman baitzituzten. Baina denbora horretan, Martinek ez zuen inoiz bere arreba Emilianaren izena aipatu, nahiz eta jakin Ansorena musikaren alorrean ari zela lanean. Ansorenak pasarte horren berri eman digunean —Eresbil artxiboko liburu eta agriren artean— harridura antzeman dugu oraindik haren hitzetan: Kaputxinoak Lekarozko etxean zen Jorge Riezukoaren bitartez jaso zuen Emilianaren berri, izena entzun eta gero ha-



Emiliana Zubeldia, 1924an ateratako argazkian.

regana joan baitzen argibide bila. Martin Zubeldiaren isiltasunaren arrazoia laster ezagutu zuen.

Izan ere, 20ko hamarkadan senarra utzi eta Parisera alde egiteko ausardia izan zuen Emiliana Zubeldiak, bere erbestealdiri hasiera emanez, European lehenabizi, eta Amerikan gero. Senar izanzen zuena ezagutu aurretik, dena den, izan zuen

musikari nafarrak pianoa jotzeko trebezia erakusteko aukerarik. Lehenengo kontzertuak Iruñean eskaini zituen, eta Bordele, Donostia, Baiona edo Miarrizte hiriak ere ezagutu zituen gero. 1917an Madrilera ailegatu zen piano jolea. Arte Ederretako Zirkuluan, Ateneoan, Ritz hotellean... hiriko bazter guztietan entzun ziren Emilianaren pianoaren notak. Kritika bikainak

jaso zituen han nafarrak. Baina kontzertuak amaitzean, hotel-tako bakardadea zuen beti zain.

Emilianaren etapa

europarra • Madrildik Iruñera itzuli zen piano jolea. Gizon asko hurbildu zen orduan harengana, eta guztien artean bi omen zituen Emilianak gogoko: Angel Lazkano abokatua eta Joaquín Fuentes kimikaria. Nestor Zubeldiaren haserrea piztu zuen Emilianak bi gizonekin batera izan zuen harremanak, eta musikariak Iruñeko Udaleko laboratoriko nagusia hartu zuen senartzat. 1919. urtean ezkondu ziren Emiliana eta Joaquín, zientzia eta artea, orduan esan zuten bezala.

Urtebeteren buruan, 1920ko ekainean, Iruñeko Udal Musika Eskolan irakasle plaza lortu zuen Emilianak. Postua lortzeko egin behar izan zuen lehiaketako agrietan 27 urte zituela idatzi zuen konpositoreak, 32 zituenean. Benetako adina ezkatatu zuen lehen aldia izan zen hura, baina ez azkena: 98 urterekin hil zen arte gauza bera egin zuen. Mexikoko herri Hermosilloko lagunek, lurperatu zutenean, 25 urte gutxiago zituela uste zuten. Adinari buruzko gezurrei esker, besteen aurrean gazteago izateko aukera ezezik, hil arte lanean jarraitzea ere izan zuen Emilianak.

Joaquín Fuentes senarraren ondoan emandako urteak, ordea, laster amaitu ziren. 1922an Parisera joan eta betiko utzi zuen kimikaria. Ez zuen inoiz Emilianaren berri gehiagorik izan. Musikariak ezkontza amaitutzat eman zuenean, Parisen ezarri eta bere bizitzako etapa europarra hasi zen. Indar eta gogo guztia musikan eta pianoan jarri zuen, eta Belgikan, Suitzan, Italian, Ingalaterran, Alemanian eta beste hainbat herritan eskaini zituen kontzertuak. Madame B. Roudanezek argitara eman zituen haren pianorako lanak 1923an. Ezagutu zituen herri guztietan, hil arte, hotelak izan zituen etxe.

Europatik Amerikarako bidea hartu baino lehen —eta agian horregatik— Emilianak gehien maite zuen pertsona galdu zuen, ama. 1928an, 40 urte zituela eta amaren galerak bihotzean utzi zion hutsune sakona lagun, milaka eta milaka kilometroko tartea ezarri zuen bere iraganaren eta etorkizunaren artean. Emiliana berri bat abiatu zen Amerikara; ordura arteko bizitzaren aztarna guztiak ezabatu eta biografia berri eta ametsezkoa idatzi zuen. Arnaizen jaioa, ezkongabea eta 25 urte gazteagoa zen Emiliana berria.

New Yorketik Mexikora • Emiliana Zubeldiaren bizitzako etapa amerikarra Brasilen hasi zen. *Berceuse de palmeras en el Brasil* lana idatzi zuen orduan. Brasildik Urugaira abiatu zen 1929an, eta handik Argentinara. Buenos



Emiliana Zubeldia, eskuinean, ama Asuncion eta ahizpa Eladiarekin, 1920an.

Emiliana Zubeldia,
musikari ezezaguna

Musikari ezezagunaren bila

■ Emiliana Zubeldia Indaren izena entzun ondoren, askok ikertu dute haren bizitza eta lana

Edume Elizondo / Iruñea

EMILIANA ZUBELDIA INDA-REN izena entzun duen inork ezin izan du ahantzi. Jende asko liluratu du piano jole berezi honen bizitza eta karrerak. Leiticia Varela mexikarrak, adibidez, irakasle eta lagun izan zuen Emiliana, eta haren bizitza eta lanari buruzko *Zubeldia, maestra maitea* liburua idatzia du. Helena Taberna zinemagile altsasuarrak, berriz, musikari nafarrari buruzko ordu erdiko filmea egin zuen 1993-94an. Zintako minutu bakoitzean Emilianak musikari zion maitasuna eta beti lagun izan zuen bakardadea islatu ditu Tabernak. Emilianaren bakardadea, hain zuzen, biziki miresten du altsasuarrak, «bakardadea eta sorkuntza eskutik helduta ibiltzen baitira, eta bakardadea ez baita txarra borondatez hautatzen denean».

Helena Tabernarentzat liluragarria da Emiliana. Oso liluragarria. Horregatik, ez du ulertzen haren obra eta bizitza berreskuratu eta aldarrikatzeko Nafarroako Administrazioak orain artean erakutsi duen borondate eza. Iritzi berekoa da Teresa Catalan. Zaragozan musika konposaketan katedraduna da eta ongi ezagutzen du Emiliana de Zubeldiaren lana. «Nafarroan ezezaguna bada ere, jorratu zituen arlo guztietan oharkabea pasatzen den pertsonaia horietako bat izan. Piano jole aparta ezezik, konpositore eta irakasle izan zen. Lan handia egin zuen. Obra asko utzi digu, eta gainera, obra horiek jotzeko musikariak sortu zituen. Baina lan hori guztia, Nafarroatik kanpo garatu behar izan zuen, herrialde horrek ez baitaki bere talentuak zaintzen. Garai hartako Nafarroa puritanoan ez zen Emilianarentzat lekurik».

Emilianaren musikari dago-kionez, Pariseko Schola Cantorumean formatu zela gogoratu du Teresa Catalanek. «Eskolan musikaririk klasikoena ikasi zuen, baina ezagupenei bere sustralak gehitu zizkien, alde batetik, eta garaiko berrikuntzak, bestetik. Bere garaiarekin konpromenezua hartu zuen, murgildu zen eta modernitatea praktikatu zuen». Augusto Novaro ezagutu ondoren Emilianaren musika erabat aldatu zela azpimarratu du katedradunak, Novaroren teknika berritzaileen berri izan bezain pronto erabiltzen hasi baitzen.

Musikari dagokionez, Mexikon lortu zuen Emilianak heldutasuna, Teresa Catalanek nabarmendu legez, baina konpositore bezala ezezik irakasle gisa egin zuen lana goraiatu du. Eta, hala eta guztiz ere, ezezaguna da Nafarroan. «Eta nola ez da izan ezezaguna Nafarroak ulertzen ez zuelako bere herritik alde egin zuen emakume bat? Emiliana ezagutu nahi badugu, sakabatatuta dagoen bere lana bildu eta aztertu behar dugu; bestela, bera



Emilianak musikari eskaini zion bizitza osoa. Argazkia 1910ekoa da.

bezalako pertsonaiak airean desagertzeko arriskua dago».

Jose Luis Ansorena kaputxi-noak Nazioarteko Gurutze Gorriaren bitartez jakin zuen Emiliana 1987an zendu zela. Jorge Riezukoarekin hitz egin ondoren, nafarraren bila hasi zen. Nicanor Zabaleta harpa joleak esan zion Hermsillon ikusi zuela azkeneko aldiz. Zabaletak, hain zuzen, ezaguna zuen Emiliana. Nafarra New Yorken zegoela, adibidez, euskal kulturari buruz egiten zuen irratia saioan txistua jo zuen Zabaletak, Emilianak ematen zizkion dolar apurren truke. Ansorenak Emiliana aurkitu zenean, ordea, berandu zen, ia bi urte berandu.

Orduetik, dena den, Emiliana Zubeldiaren figura berreskuratzeke lan handia egin du Eresbilek. Han dago bilduta nafarraren bizitza eta lanari buruz gaur egun ezagutzen den gehiena.

1991. urtean, gainera, musikari nafarra omendu zuen Eresbilek Errenteriako Musikasten. Orain Leticia Varela zuzentzen duen Sonorako Unibertsitateko Emiliana de Zubeldia abesbatza han izan zen. Nafarroan ere kontzertuak eskaini zituzten irakasle zenduaren omenez.

Eresbilek 1991. urtean egin Musikasten, hain zuzen, Fernando Perez Ollo nafarrak parte hartu zuen, Emiliana Zubeldiaren bizitza eta lana hobekien ezagutzen dutenatariko batek. «1929. urteko liburu batean aurkitu nuen, kasualitatez, Emiliana Zubeldiaren izena. Orduz geroztik, jakinminak bultzatu nau haren inguruan ahalik eta gauza gehien jakin nahi izatera». Emilianaren bizitza aztertzen hasi zenean, musikari nafarra bizirik zegoen artean, «baina inork ez zekien non zegoen. Senarra bera, emaztea non zegoen jakin gabe

zendu zen. Behin, Emilianaren neba Nestor oso gaixo zenean, Mexikotik Iruñera itzuli zen piano jolea. Joaquín Fuentes Nestor ikustera joan zenean, alboko gelan ezkutatu zen Emiliana, eta emaztea ondoan zela jakin gabe alde egin zuen Joaquinnek. Emilianak ez zion deus erran, ez zuen ikusi nahi izan. Nafarroan ezezaguna bada, berak halak nahi izan zuelako da, aztarna guztiak ezabatu baitzituen».

Emilianaren nortasuna hain berezi eta liluragarri bilakatzen duten halako anekdotak ditu gustukoan Mikel Juanizek, La Pamplonesa Iruñeko musika bandako kideak. Kontserbatorioan izan zuen Emilianaren berri, eta geroztik han eta hemen bilatu ditu haren nortasunaren sekretua argitzeko arrastoak. Hasieran erran bezala, ez baita erraza Emiliana Zubeldia Indaren lilurari ihes egitea. X

Airesen hango euskaldunekin egin zuen topo.

Urtebete beranduago bere karreraren oso inportantea izan zen hirira ailegatu zen Emiliana: New Yorkera. Etxeorratzen hirian American Women Association elkarteak aurkitu zuen, eta han, beste emakume artistekin harremanetan hasi zen. Parisen bezala, garaiko abangoardia artistikoekin bat egin zuen. Estatu Batuetan zegoela, gainera, ordutik aurrera bere karrera erabat markatu zuen irakaslea ezagutu zuen Emilianak: Augusto Novaro mexikarra.

Estatu Batuetan kontzertu ugari eskaini zuen Emilianak. 1932an bere *Poema místico* estreinatu zuen, eta, bost urte geroago, Mexiko Distrito Federalean betiko gelditzea erabaki zuen. Han, Novaro irakaslearekin egin zuen lan. Garai horretakoak dira *11 tintos*, *5 estudios para piano* eta *4 canciones*, Ricordik argitaratuak. 1939an *Sinfonia elegiaca* idatzi zuen, urte horretan hil zen bere ahizpa Eladiaren omenez.

Iraganeko

aztarnaguztiak
ezabatu eta biografia
berri eta ametsezkoa
idatzi zuen Emilianak

1949. urtean Hermsillora ailegatu zen Sonorako Unibertsitateko abesbatzaren ardura bere gain hartzeko. Ia 40 urtez bizi izan zen han, beti hoteletan. Abesbatzako zuzendari, konpositore, musikari irakasle eta hizlari izan zen. 1976an, 86 urte zituela, Joaquín Fuentes senarra hil zitzaion. Hermsillon, 63 urteko emakume ezkongabea zela uste zuten denek orduan. Egia jakitea ezuste handia izan zen denetzat. Omenaldiak jasotzeko garaia heldu zitzaion Hermsillon. Antzoki eta plaza batek dute haren izena han, baita Sonorako Unibertsitateko abesbatzak orain ere. Haren omenez egin dako bustoa ere unibertsitatean da.

1987ko maiatzaren 26an zendu zen Mexikon Emiliana Zubeldia Inda. Askotan erran zuen musika dela gauza guztien arima, guztiek gustuko duten artea. Arte horri, gauza guztien arima horri eskaini zion Emilianak bizitza osoa. Emakume ausarta eta libre izan zen, baita misteriotsua eta isila ere. Haren talentua ulertu ez zuen Nafarroatik ihes egin zuen bere pianoa erbestean jotzeko. Gaur egun, ezezaguna da oraindik Emilianaren izena nafar eta oro har euskaldun askorentzat. Jaitzen jaiotako piano jole eta konpositorea nor izan zen argitzen ahal duten obra asko Sonorako Unibertsitateko artxiboan dira oraindik, ezagutzera nork emanen dituen zain.

Xanti Begiristain

Elbarri egitaraua

■ Nafarroako Kontuen Ganbarak, 1997. urteko apirilaren 30ean, atera du 1995. urteko Elbarri Egitarauari buruzko txostena. Sinatzailea Patxi Tuñon San Martin duzue, eta aipatutako egitarauari buruz egin duen eraginkortasun azterketa oso deigarria iruditu zait; horregatik saiatu behar dut artikulutxo honetan islatzen punturik nabarmenenak.

Deus baino lehen adierazi nahi dut, delako txostena luzeska eta mamitsua dela; 47 orrialde dauzka. Hona hemen ba, balorapenaren laburpen txo bat, beste gauza garrantzitsu askoren artean. Honako hauexek esaten ditu Nafarroako Kontuen Ganbarak Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuari buruz:

pertsonak erabili dituelako.

3. — Arautegiaren garapen eskasa, eta emandako dirulaguntzei buruzko kontrol murrizta.

4. — Informazio normalizatuaren sistema eza.

5. — Kontzertuen oraingo egoera kaskarra askoz ere lehenago antzeman zitekeen eta konponbideak aurkitu.

Egitaraua, bestalde, ez da erabatekoa. Ez ditu biltzen langile guztien gastu guztiak. Eraikuntza berriak egiteko inbertsiorik ere ez du jasotzen.

Nafarroako Kontuen Ganbarak komenigarritzat jotzen du Institutuak hartzea bere gain inbertsioen eta langileen kudeaketaren erantzukizuna.

Elbarrien egitaraua birplanteatu beharra dago eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuko ku-



Helburuak ez daude definiturik; egiten duena zera da, era orokorreko asmo-aitorpena; adibidez, «gizarte ekintza hobetu», «gizarte integratu eta normalizatu», «elkartzeko eta asoziatzeko mugimenduak sustatu» eta abar. Ez daude kuantifikaturik eta erlazonaturik egitarauaren aurrekontuen kredituekin.

Jartzen diren indikadoreak ez daude zuzenki erlazonaturik helburuekin.

Ez da gauzatu aurrekontuei buruzko jarraipen zehatzik, eta jardunaldiaren ondoren ez da txostenik egin.

Lortutako ondorio batzuk ondokoak dira:

Gobernu aldaketak direla eta, langilerian mugikortasun handiegia izan da, Horrek kaltetu ditu kudeaketa eta eraginkortasuna, esate baterako, hurrengo puntu hauetan: 1.— Egitarauaren hainbat ekintzari buruz informazioa lortzeko zailtasuna.

2.— Espedienteen egoera kaskarra, hainbat

deaketa talde berriak badaki: zenbait lanposturen kudeaketa profesionalizatzeko; arautegi berri, argi eta zehatz bat garatzeko; kontzertuetan dauden arazoak aztertu eta konpontzeko; elbarrien benetako egitaraua garatzeko, kostuak eta helburuaz jasoaz; Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua eta Osasunbidearen arteko koordinazio handiagoa lortzeko; oztopo arkitektonikoak lehenbailehen desagertarazteko, Foru Legea aplikatuz; ezinduen gizarte integrazioa laguntzeko, baita lan munduan ere. Kolektibo horretan langabeziaren tasa hiru-koitza da.

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuko zuzendari-kudeatzaileak ondoko alegazioak egin ditu: alde batetik, Gizarte Zerbitzuak berri samarrak direla esan du (Legea 1983koa da), eta bestetik, «modu trinkoan ari da lanean», «barneko arautegia gainbegiratzeko ari da», «oztopo arkitektonikoak kentzeko konpromezuak hartzen dira» eta halako beste batzuk bota ditu. ■

Klasiko bitxi • aront klasiko

Joxemiel Bidador

Martin Ducq:
'Erroma eta
Jerusalem'

■ «Juan ginen Martzeilatik Erromarat. Uste nuen ez nuela khaustutiko ene bidean lorerik baizik; bainan laster oharatu nintzen elhorriak edo basateak ere bazirela. Ene penarik handienak untzian hasi dira eta untzian akhabatu. Untziko ikhustekoa! Gutiz gehienak han, barnea eritua, lehertuak ari ziren jan edan guztien aurthikitzen; eta ezbalitz ichtant hartako desarranjamendua baizik! Bainan han zen oraino ondoko egunetan ere aisia eskas bat: jateko gogorik ez; gure ohetarat juaiten baginen, han hain hertchiki gutarik juaiten baginen, han hain hertchiki gutarik bakhotcha, non plegatuak bezala baikin, aire beharretan, eta ezin aski aire izan! Ai! Ameriketarat juaiten direnek balakite zer behar den pairatu untzian, ez laitezke hola juan Ameriketarat fortuna egiteko». Honelaxe du hasmenta Martin Ducq bilhotz sakratuko misionestak ondutako idazkiak. Zinez eskax agitzen zaigu apez honi buruz iritsi zaiguna, bere liburuan berean jasotzen denaz gainera ez baitugu besterik. Jakin badakigu Hazparnekoa zela. Atarikoan Jean Pierre Arbelbidek zioenari jarraituz: «Zure liburuak ez derauzkigu bakharririk Jerusalem eta Erroma ezagutaraziko; bertalde begien altzinean emanen derauku Hazparneko eskuara berezia; hemendik goiti zurea izanen dugu, eta gure ondokoek ere jakinen dute Hazparneko minzayaren berr!».

Erroma eta Jerusalem Baionan argitara eman zen, Ganbettako karrikaren 20. zenbakian zegoen Lasserre baitan, «aphezplikuteguiako liburu egullea» zenarenean hots, 1891. urtean, 422 orrialdeak bi zati desberdinetan banatzen dira. Erroma eta Aita Sanduak izkirigai duen lehendabiziko baten eta Paleztina edo lekhü sainduak deskribatzen dituen beste bigarrenaren artean. Ez dira asko eukal literaturaren historia bidaiak kondagai nagusizat izan dituzten idazlanak. Ibon Sarasolak klasikoan bildumarako apailatu zuen Jon Izurategiren *Jerusalem-go Osteran* amari idazkijak 1923.eko liburuaren edizio berriari bi baizik ez ditu aipatzen: Etxepareren *Berebüz* eta *Anabarteren Aprilako basamortuan*. Ezagun da Ducq hazpandarrarena atzundu zitzaioela, guzti hauetan zaharrena eta lehena izan bazen ere.

Erromako bidaztiak Ekialdera eginkoak baino askoz orrialde guttiago bereganatzeagatik ere ez dugu garrantzi gutxihoa, eta hori hasiera hasieratik nabarmena den gauza genezake: «Bi egunen buruan Erroman ginen. Ai Erroma! Hiri maitea! Aita Sainduaren egon lekhu! Erroma, gu guztien hiria! Erroman etchean gira». Txundituta daukagu Ducq apez Erroman diren gauza miragarriak ikusirik: elizak, karrakak, iturriak, baita lehen kristauen bil lekuak ziren lur azpiko hilobi mitikoak ere: «Izan ere gira katakombak deitzen diren thomben ikhusten. Katakomba hek, lurpez, urrun Johan diren barne batzu dira. Erran daiteke Erroma ageri denaz bertalde, badela Erroma ageri ez den bat Erromako hiriaren azpian eta inguruetan. Pertsekuzione bat altchatzen zenean, girichtinoak bazohatzen gordetzerat Katakomba edo lurpeko egoitza hetarat, persekuzioa pochi bat ezti artino, eta jabantzen zenean edo gelditzen, jaltzen ziren beren ihes-lekhetarik».

Alabaina, eta Erromako edertasun guzietan gure abade hazpandarra ahoa bete hortz geratu arren, Paleztinan zehar eginko itzuliaren berri bereziki eman zigun zehatz-mehatz. Leku santu guzietatik erromes ibiltari, gurutzatu zaharren antzera, kristaudentzat aldarrikatzen zuen itsu lurralde hura, hortako aproposena zeukan Napoleon Bonapartek horrelakorik egin ez izanak guziz penaturik: «Hainbertze gerla Europa guztian harrabots handia egiteko plazan, hobeki eginen zuen gerletako bere thalendu handiaz baliatu izan balitz Mahometi lur sainduak khentzeko eta Aita Sainduari hek emateko». Berriz etxeari buruz, mare nostrum osoa gurutzatu beharreko itsasaldian, herri minak bidaialaria garaitzen du: «Untzi zola-zolako hartan nindagolarik, itsas-minaz flakutua, errana nuen ene buruarekin: Noiz izanen othe naiz Misionesteko ene chokhoan!». Itsasontzian bidaiate lagun hiru euskaldun izan zituen, herri-min, benetako ohe-min, bestelako janari-min edota dena delako-minen ororen ahanzarazteko makulu. Haletarik bat «jaun aphez konpainia oneko bat zen, bethi gauza guziak aitzinetik phisatuz egiten zituena. Artha berezi batekin bide guziak hartuak zituena deusetaz ez eskasteko. Gerthatu zaut aldi bat baino gehiago jaun aphez harren beharra izaita, berekin zituen sokhorrien medioz ene barnea ontzeko eta osasuna arthatzeko». Bigarrena «jaun aphez eskaldun bat zen, herri bateko bikarioa. Jakin izan balute bada Beduainek, nik arras ongi nakien bezala, gure lagun hori diruz kargatua zela! Zer arriskua berarentzat!». Hirugarren laguna izabarra zuen agidanez: «jaun aphez español bat zen, orduan segurik Santa Graziaren bertze aldetik zagona, Espainiak azken herrian, Zuberoari kontra. Bakeko gizon saindu bat da. Nahi izan da San Ignazio eskualduna zenaren kompanian bizi jesuist bezala, misione urrut batzuetan, itsasoan erdian. Osasun eskasak obliga arazi du jitera haren osasunarentzat hobeagoko lekhu hautara. Haren populua eskuara garbikoa da, eta harrek hitzik ez jakin eskuaraz! Horra nola anitz urthe hotan Espainian entseiatzen diren framazonak eta liberalak gure lenguaia ederraren galaraztea. Badakite hola lenguaia galtzearekin erlijioa ere galduko dela, eta heien idea Elizak kondentzen dituenetarat eroriko direla gure eskualdunak». ■

12 ordu euskaraz Baztanen

Elizondoko euskararen jaialdia bigarren aldiz ospatuko dute bihar eta etzi baztandarrek

Baztango Dantza Taldeak antolatuta, 12 Ordu Eskuaraz Baztanen ospatuko dute Elizondon bihar eta igandean. Iaz egin zuten lehendabiziko aldiz, eta lortutako arrakasta ikusita, aurten ere errepikatzea erabaki dute antolatzaileek. Aurtengo egitaraua, dena den, berria izanen da, eta kale antzerkiaren bitartez XIX. mendeko pertsonaia ezagunak ekarriko ditu gogora.

Edurne Elizondo / Irunea

BAZTANGO Dantzarien eskutik eta bigarren aldiz, 12 Ordu Eskuaraz Baztanen ospatuko dute bihar eta igandean Elizondon. Euskararen erabilera bultzatu nahi du jai honek, eta herriko kultur eta kirol talde guztiek parte hartzen dute. Iaz ez bezala, aurtengo egitaraua bi egunetan banatu dute antolatzaileek. Horrela, bihar, Baztango kirol elkarte eta taldeak izanen dira protagonista, eta igandean, berriz, kale antzerkia. Iruritako eta Irulegiko antzerki taldeen eskutik, kultur talde guztiek parte hartuko dute antzezpenean.

Biharko egunari dagokionez, goizeko hamarretan hasiko dira ekitaldiak. Patinaje erakustaldia egingen dute, eta eguerdian, berriz, laxoa partidak izanen dira Iruritan, eta futbitoa Elizondon. Baztan eta Lesakako taldeak ariko dira lehian. Arratsalde partean, lauretan, pilota partiduak izanen dira Elizondoko trinkean, eta ordubete beranduago, rugbya Lekarotzen: Baztan ariko da Baigorriren kontra. Kirol ekitaldiei amaiera emateko, arratsaldeko zazpitan, eskubaloi partidua jokatu dute Elizondoko kiroldegian.

Baztango eskuarazko 12 orduen barruan, dena den, igandekoa izanen da egun nagusia, eta igandean ikusi ahal izanen dira aurtengo edizioak ekarri dituen berrikuntza nagusiak. Goizeko bederatzietatik gaueko bederatzia arte euskara izanen da jauna eta jabe Elizondoko karriketan. Argi-soinuarekin hasiko da eguna Baztango herri guztietan. Behin bazter guztietako baztandarrek iratzarri ondoren, goizeko hamar eta erdietan antzekiak hartuko ditu bazterrak. Iruritako antzerki taldearen eskutik eta Irulegiko taldearen laguntzaz, Damaso Etxeberria, Luis Luziano Bonaparte eta Bruno Etxenike XIX. mendeko pertsonaia ezagunak ezagutu zuten Baztango giroa bizi ahal izanen dute herritar guztiek. Elizondoko karriker atzera egingen baitute denbor ordukoak gogoratzeke.

Ondoren, goizeko hamar eta erdietan, meza egingen dute Elizondoko elizan, eta hamabi eta erdietan, kaleko antzezpeneri amaiera emateko, ongi etorria egingen diete partaide guztiei Ba-



lleko Etxean. Plazan, bitartean, mutildantzak eta sokadantza ikusi ahal izanen dira. Ordu bi eta erdietan Baztango talde guztiek egingen dute zikro jatearekin akituko dira goizeko ekitaldiak.

Sabela ongi beteta, arratsaldeko sei eta erdietan, antolatzaileen iduriko eguneko ekitaldirik nagusia hasiko da, dantza emanaldia alegia. Baztango Dantza Taldeko kideek —denetara 300 bat lagunek parte hartuko dute jaialdian eta Baztangoekin batera Malerrekako hainbat dantzari ariko da— urte osoan ikasi eta prestatutakoa erakutsiko dute

jendaurrean, Elizondoko pilotalekuan. Besteak beste, *Hiru muxiko*, *kontradantzak* eta *Betuleren fandangoa* eskainiko dituzte. Doneztebeko taldeak, halaber, herriko *Trapatana* dantzatuko du. Eguna bukatzeko, gaueko bederatzietan, dantzaldia hasiko da leku berean.

Baztango taldeak biltzeko jaiak • Baztango 12 Ordu Eskuaraz, hango dantza taldearen ekimenez antolatu zuten iaz lehenbiziko aldiz, Taldeko partaide Irantzuz izetak eman digu euren asmoaren berri. «Joan den urtean

Iazko 12 Ordu Eskuaraz Baztanen jaialdian dantzak izan ziren egunaren ardatz.
MENA ARGAZKIAK

konturatu ginen Baztanen talde pila zegoela, baina bakoitzak bere kabuz egingen zuela lan, eta ez zirela elkartzen. Horri aurre egiteko, besta bat egitea pentsatu genuen, denak bildu, eta bide batez, urte osoan egindakoa erakusteko».

Iazko jaiak gogoratuz, Irantzuz izeta kontent agertu da lortu zuten emaitzarekin, erran digunez «izugarriko arrakasta» lortu baitzuten. «Ez genekien nola aterako zen, baina jendeak gozoz parte hartu zuen eta ongi hartu zuten besta. Giro ederra sortu zen eta partehartzaile guztiak kontent itzuli ziren etxera», gaineratu du. Asteburuan giro dero edo hobea lortuko dutela ziur da Izeta, haren iduriko herritarrek konturatu baitira halako jai beharrezkoa zutela bailaran.

Iazkoa kontuan hartuta, Baztango Dantzariak argi zuten aurten besta errepikatu behar zutela: «Ez dugu zalantzarik izan». Baina zerbait berria prestatu behar zutela pentsatu zuten aurtengo egitaraua osatzen hasi zirenean. Partaide guztien iritzia aintzat hartu dute, eta, eztabaidatu ondoren, baztandar guztiek larunbat-igandean gozatu ahal izanen dituzten ekitaldiak prestatu dituzte.

Luis Luziano Bonaparteren bisita

AURTENGO 12 Ordu Eskuaraz Baztanen jaialdian, Luis Luziano Bonaparte, Bruno Etxenike eta Damaso Etxeberria izanen dira ohorezko gonbidatuak. XIX. mendeko pertsonaia ospetsu horiek Iruritako antzerki taldearen eskutik izanen dira Elizondon igandean, baztandar guztiei euren berri emateko asmoz, askorentzat ezezagunak baitira. Elizondoko karriketan ibiliko dira igandean, herritar guztien aurrean.

Igandeko antzezpenean eguneko izanen da ekitaldi nagusietako bat, eta presketan ahalegin handia egin behar izan dute Iruritako aktoreek, orain artean ez baitute inoiz halako muntaiarik egin. Hori dela eta, Berako Lamixine BAT antzerki taldeko kide Jose Luis Berasategi eta Raul Garcaren laguntza izan dute, kale antzerkian esperientzia handiagoa baitute.

Gogoratu beharra dago, gainera, aktoreek ezezik, Baztango kultur talde guztiak izanen direla igandeko obrako protagonista, denek parte hartuko baitute antzezpenean une batzuetan. Zahar Etxean hasiko da ekitaldia eta karriketan barrera ibilaldia egingen dute aktoreek, hautatutako hainbat lekutan geldialdiak eginez. Geldialdi horiek emanen diete aukera talde guztiei antzezpenean parte hartzeko. Dantzariak, akordeoilariak, orkestra, txistulariak, abesbatza, txarangak, erraldoiak, gaitariak, trikitalariak eta beste aktore izanen dira egun batez.

1867. urtean Luis Luziano Bonapartek Baztanera egingandako bidaia izanen da antzerki lanaren abiapuntua. Luis Luziano Bonaparte Napoleon I.aren iloba izan zen. 1813an jaio zen Ingalaterran eta 1891n hil Italian. 1856an, Antoine Abbadia adiskide euskaltzaleak lagunduta, euskara ikastea erabaki zuen. Euskaltzale handiak izan zituen lagun. Haien artean, Bruno Etxenike. *Printzearen* laguntzaile nafarren zuzendaria izan zen. 1820. urtean Urdazubin jaio zen Etxenike, eta 1893an zendu zen Iruritan. Elizondoko Datugarria jauregiko nagusia izan zen.

Damaso Etxeberriaren figura ere gogoratuko dute igandean antzezleek. Bordelel sortu zen 1834an eta 1886an zendu Elizondon. Baztango alkatea izan zen, baita idazlea ere. Bonaparte printzearen izkribuen artean, Xabierko Frantzisko deunari nafar euskalkian Etxeberriak idatzitako kantikoak aurkitu zituzten. Aipatu hiru pertsonaia horien inguruan gehiago jakin nahi duenak, Elizondon du aukera, igandean. X

◆ Joseba eta Mitxelo Gurrutxaga ◆ Artisauak

«Kilikiek omenaldia merezi zuten»

Orain dela aste batzuk, irailaren 16an, aurtengo Sanferminetako kartela izanen dena aurkeztu zuten Iruñeko Udaleko arduradunek. Joseba eta Mitxelo Gurrutxaga anaiek egindako lana izan da lehiaketako irabazlea. 'Caravinagre' erraldioen konpartsaoko pertsonaia aukeratu dute kartela egiteko.

Edurne Elizondo / Iruñea

IRUINDAR askorentzat bezala, oroitzapen polita da Caravinagre kilikia Joseba eta Mitxelo Gurrutxagarentzat. Maite dute, eta, erran digutenez, gure sustraiak gogoratzeko hautatu dute. Kilikiari eta beren lanari buruz mintzatu dira gurekin gipuzkoarrok.

■ Zergatik aukeratu duzue Caravinagre konpartsaoko kiliki guztien artean?

Joseba: Sustraiak bilatu nahi izan ditugu, geure buruari begiratu. Zerbait ezberdina egin nahi genuen, gainera, aldatzea gustuko baitugu. Gure ustez, gainera, Caravinagre da kilikien artean enblematikoena, begirada arduragarria du...

Mitxelo: Begirada pikarota da nire ustez. Azken finean, bakoitzak bere modura ikusten du kartela, nahi duen interpretazioa egiten du.

Joseba: Bai, sinbolo bat da, eta egiterakoan guk ez dugu pentsatu jendeak zer iritzi izanen duen. Ideia ederra iruditu zitzaigun eta egin dugu. Kilikiek eta konpartsa osoak omenaldi txiki hau merezi zutela uste genuen eta hori egin dugu.

■ Oroitzapen berezirik ekartzen al dizue zuei Caravinagre-k?

Joseba: Bai noski, norik ez du haren aurrean korrika egin! Hamabost urterekin ailegatu nintzen ni Iruñera, baina niri ere gertatu zait. Korrika egin dugu berarekin, zirikatatu dugu, haur guztiek bezala. Konpartsak, gainera, ez du galdu haurrak liluratzeko ahalmena.

Mitxelo: Orain, gainera, egunez bizi ditugu Sanferminak eta kilikiek jende asko erakartzen dute. Gazte nintzela gauzez ezagutu nituen jaiak, eta hori dela eta, orain beste modu batean balo-



Joseba eta Mitxelo Gurrutxaga Caravinagre-rekin, saria jaso zutenean.

LUIS AZANZA

ratzen ditut eguneko ekitaldi horiek.

■ Nola erabaki zenuten kartela egitea, nolakoa izan da lan prozesua?

Mitxelo: Aspalditik genuen kilikien maskarak egiteko asmoa, baina orain arte ez dugu lortu gure asmoa egia bihurtzea. Ideia bagenuen, eta abiapuntu horri helduta egin dugu kartela.

Joseba: Figura modelatu dugu lehendabizi, moldea egin eta kartoa jarri dugu gainean. Idortu eta gero, margotu dugu koadroa osatzeko. Hondoan egiteko belus gorria aukeratu dugu. Eta horrela egin dugu kartela.

■ Iruindarrek izan dute jada zuen kartela ikusteko aukera. Zernolako iritziak jaso dituzue orain artean?

Joseba: Nik uste dut, oro har, jendeak oso ongi hartu duela kartela. Orain arte esan digute-

naren arabera, kartela asko gustatu zaio jendeari eta pozik gaude. Guretzat amets bat izan da, egia bihurtu dugun ametsa. Dena den, sariari ez diogu duen baino garrantzi handiagoa eman nahi. Gure saririk onena lana da, hori da gure ilusioa, gauzak egitea; eta jendeak, gainera, egiten duguna gustuko badu, askoz hobeto.

Mitxelo: Kartela gustatu zaiola esan dit niri ere hurbildu zaidan jende gehienak. Gure pertsonaia da, denek ezagutzen dute, eta kartela, gainera, erraz uler daiteke. Caravinagre da.

■ Orain kilikien maskarak egiteko asmoa baduzue ere, beste gauza asko egiten duzue. Nola hasi zineten artisautzaren munduan?

Mitxelo: Egia esateko, langabezian gelditu nintzenean hasi nintzen ni, eta gero, nerekin Joseba hasi zen. Lehendabizi San

Nicolas kaleko merkatu txikian, hasi ginen egiten genituen gauzak saltzen, baina esperientzia gaizki bukatu zen. Guk artisautza saldu nahi genuen, guk edo besteek egindako gauzak, baina azkenean denetarik zegoen, eta guretzat ezinezkoa zen lehiatzea. Eta utzi genuen. Orain, batez ere, Eguberriko Azokan saltzen ditugu gure lanak, Artisauon esku dago orain azokaren antolaketa eta horretan jartzen dugu gure indarra. Hori da guretzat inportantea.

Joseba: Panpin txikiak egiten genituen hasieran. Gero, Mitxelo mugitzen ziren txoriak egiten hasi zen, eta orain, denetarik: hautsontziak, sorginak, eskatolazko ilargiak, txotxongiloak, pertsonaia ospetsuen panpinak eta abar.

■ Nola ikusten duzue artisautzaren egoera eta etorkizuna

s o s l a i a

Mitxelo eta Joseba Gurrutxaga, hamalau eta hamabost urterekin ailegatu zirenen Legazpitik Iruñera. Mitxelok Nafarroako hiriburuan jarraitzen du, eta Josebak, berriz, orain dela hiru urte Zizur Nagusian aurkitu zuen bizilekua.

Artisautzaren munduan urteak eman dituzte Gurrutxaga anaiek. Etxean egiten dute lan, bakoitzak berean, eta baita biek Josebarenean ere. Mota askotako panpin eta txotxongiloak sortu dituzte orain arte, eta, Sanferminetako kartel lehiaketa irabazi eta gero, kilikien maskarak egiteko asmoa dute orain.

Beste hainbat azokatan parte hartzen badute ere, Joseba eta Mitxelorentzat Iruñeko Eguberriko Azoka da garrantzitsuen. Eguberriko Azoka prestatzeko, hiru kolektibo ari dira orain batera lanean: Eguberri, San Nicolas eta Elkar.

gure herrialdean? Zaila al da alor horretan aurrera ateratzea?

Joseba: Oso gaizki dago artisautzaren sektorea. Ez dago inolako koordinaziorik, ez dago gure arteko elkarrizketarik. Lehen Eskuz elkartea egon zen zerbait egin nahian, baina bertan behera gelditu zen, eta orain ez dago deus. Alde batetik, kanpoko produktuak barra-barra sartzen eta saltzen ari dira, eta horren aurrean, artisauok eta dendariak ez gara gai elkartu eta denok batera borrokatzeko. Gaizki, oso gaizki gaude, eta zaila da aurrera egitea.

Mitxelo: Kontuan hartu behar dugu artisauen gremioa oso indibidualista dela, eta Administrazioak ez du batera bultzatzen. Gauza asko egiteko aukera dago baina ez dago borondaterik. Artisautzari esker bizitzea, gaur egun, oso zaila da, ezinezkoa. x

BEKARIO!

Zaldi Eroa

